

BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA ALTZIBAR

ZENBATGARREN SAIOA : 2

DATA:	HASIERA ORDUA:	BUKAERA ORDUA:
2015-11-11	19:35	21:00

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak: Jexux Leonet, Eneritz Arbelaitz, Iosune Cousillas, Jon del Olmo

Kopurua: 25

16-30 urte: 4	Emakumeak: 9	Euskaraz:21
30-50 urte: 5	Gizonezkoak:16	Erdaraz: 4
>50 urte: 16		

AKTALARIA: Iosune Cousillas

	GAIA	ERABAKIA
1	Aurkezpena	Udaleko kideak aurkeztu dira eta zinegotzi arduradunaren jarduna azaldu. Eneritzek azaldu du bilera nola joango den. Jexuxek gazteleraz egin du. Bileran zehar berak itzuliko du gaztelerara.
2	Aurrekontuak 2016	Aurrekontuen oinarriko kontzeptuak aurkeztu dira.
3	2015eko lanak	Adierazi da orain arte egin dena. Haur parkeak, autobus geltokiak, espaloia, alkantarillak, baranda, Olaldeko zubia.... Egiteko daudenak: abiaduraren kontrola, kutxazaina, argiteria, zakur kakak... -Emakume batek eskertu du orain arte esandakoa egin delako. -Jexuxek adierazi du eskaera batzuk ez daudela gure konpetentziaren barruan, eta, horregatik, zailagoa dela aurrera eramatea: kutxazaina, abiadura, argiteria... -Kamioiak nahastuta sartzen dira Done Petri kalean seinaleak dauden arren, eta balkoiak hausten ari dira. Agian seinaleak handiagoak jarri beharko liriateke. -38.000 euro gastatu dira parkeak berritzen. Honekin adierazi da pasatu garen arren, gure dinamika zein izan beharko luken adierazten duela: lau urteko ikuspegiarekin egindako proiektuak.
4	2016ko inbertsioak	Ikuspegia datozen lau urtetako. Nolako Altzibar nahi dugun. Beste urtetan auzoak eskatutakoa proposatu da: Olaldeko lokala eta kirolgunea. - Olaldeko lokala.

		<p>Auzotar batek deialdia egin du hurrengo ostiralerako. Auzotarrek bilera bat antolatu dute denen artean erabakitzeke zer egin nahi duten lokalarekin. Eskoletan arratsaldeko 7:30etan.</p> <p>Beste auzotar batek esan du agian jende zaharrarentzat 7:30ak berandu izan daitekeela.</p> <p>Gai honen inguruan debatea sortu da.</p> <p>Auzotar batek adierazi du jende atzerritarrari ez zaizkiola iristen deialdiak.</p> <p>Datorren urtera begira landu beharko da ia nola kudeatzen den lokal horren konponketa.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kirol-gunea. <p>Auzotar batek adierazi du plazaren inguruan egokia litzatekeela kirol-gune estali bat egitea.</p> <p style="padding-left: 40px;">-Besteak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Auzotar batek adierazi du Kadarso kentzen denean partida bat gorde beharko litzatekeela espazio horren garbiketarako. <p>Auzotarrek erakutsi dute horren inguruko haserrea, zikinkeria, usaia.... Asteburuetan ere lana egiten dute.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Olalde atzean dagoen belardiari eman beharko litzaioke erabilpena. Mahaiak, parrilla, aiton amonentzat gimnasia egiteko tresnak.... <p>Auzotarren artean geratu dira lokalari lehentasuna emango zaiola.</p>
5	Mantenu lanak	<p>Katuak. Altzibarren katu asko aske daude. Gai honek sortzen ditu bizilagunen artean istiluak.</p> <p>Katuak gaixo daude, bizilagunek janaria ematen diete eta urtean hirutan ugaltzen ari dira. Une honetan asko daude.</p> <p>Horren inguruan aipatu da elkarte bat etorriko dela katuak esterilizatzeko. Honen inguruan eztabaida sortu da, katuak bai, ez.... Ordenantza baten beharra ikusten da, edota horren inguruan informazioa.</p> <ul style="list-style-type: none"> -Grua noiz arte egongo da hor. Erantzun da bere baimenak badituela. Lan bat egiten ari dela horren inguruan baldintza txarretan dauden Oiartzungo espazioak garbitu arazteko. -Agerraldeko bidean zuloak daude. Autobuseko paradara joateko bidean ere zuloak daude. Espaloiak zikinak daude, goroldioa, belarra.... -Irundarrene tabernaren kanpoko aldean mahaiak jartzen dira eta espaloia okupatzen dute. -Albisturreko terraza gero eta handiagoa jartzen ari dira. Parkera pasatzen ari dira. -Agerralden ez dira egoki aparkatzen kotxeak. Tarteka udaltzainak pasa beharko lirateke. - Kadarsoko apartazio gunea zikin xamarra dago, ez da egoki erabiltzen, kanpoan zikinkeria asko dago. - Goiko parkean ez daude zuhaitzak eta beroa dagoenean kiskali egiten da. Itzala beharko litzateke.

2015 URTEA

2016ko aurrekontuak



		Agian egokia litzateke eskolaren kontran eserleku bat jartzea itzaletan egon ahal izateko. - Agerraldeko etxebizitza sozialen gaia. Aspaldi jende bera dago bertan bizitzen. Horren inguruan aspaldi ez da ezer egin.
6	Balorazioa	Eskertu dute aho batez auzoan egin diren konponketak. Balorazio orriak bete dira.

Lehentasunak:

- Olaldeko lokala.

Balorazioa	
Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,57
Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	8,67
Bileran erabili den metodologia	8,62
Herritarren asistentzia	6,75
Herritarren partehartzea	7,52
Saioa probetxugarria izan al da?	8,70
Egunaren egokitasuna	8,42
Orduaren egokitasuna	8,32
Lekuaren egokitasuna	8,47
Denera bataz beste	8,23

Komunikazio bideak	kop	%
Bandoa/kartelak	4	10
Irratia eta prentsa	3	7,5
Sare sozialak	5	13
Ahoz-ahoz	11	28
Udal aldizkaria	17	43

2015 URTEA
2016ko aurrekontuak

